

Euskararen egoera Arrasaten

Josemari Velez de Mendizabal
Idazlea

Egileak bere herrian azkeneko berrogei urteotan euskarak bizi izandako gorabeherak aipatzen ditu hitzaldian. Arrasatek, herri enblematikoa Euskal Herriko mapa geo-sozial-ekonomiko-politikoan, atzerakada izugarria jasan zuen 60.eko hamarkadan euskararen erabilpenari dagokionez: diktaduraren zamak eta inmigrazioaren bultzada kontrolagaitzak euskara ia-ia desagertarazteraino eraman zuten. Baina, herri-ekimenei esker, zuzpertz ahal izan da hein handi batean eta Arrasate berriz ere eredu bilakatu da hainbat euskal herrirentzat, bertan garaturiko esperientzien modeloak leku askotan ezartzen ari direlarik.

The autor mentions in his lecture the ups and downs undergone by the basque language all along these past forty years in his home town. Arrasate, an emblematic village of the geopolitique and socioeconomic map of the Basque Country, gave a huge backward step in the sixties, as far as the usage of basque language is concerned: both the consequences of the dictatorship and the increasing force of immigration led to the almost total extinction of the language. But thanks to the effort made by the people it has revived to a great extent, and Arrasate has become an example for many basque villages, where the experiences developed in the latter, are being largely followed.

Udako Euskal Unibertsitateak hitzaldi hau gaur ematea eskaini zidanean*, halako irribarretxo bat loratu zen nigan, Uda eta San Andres jaiaren arteko diferentzia arras nabarmena zela iruditu baitzitzaidan. Baina, badirudi –zorionez dudarik gabe– udako epeltasuna luzatu egin dela urte osoan zehar euskal unibertsitateak antolaturiko ekintzeta. Gure etorkizunerako iragarpen ona izango delakoan, *San Andrés, la nieve en los pies* behingoz ahaztu egingo dut eta lotu egingo natzaio gaurko gaiari, udako unibertsitatea denon artean sasoi guztietako berotasunera birmoldatzen ari garelako esperantzan.

Euskararen egoera Arrasaten ipini zidaten aurkezgaia eta, aitortu behar dut, dardarean jarri nintzen halako eskaintzaren aurrean, izan ere esfortzu handia exijitzen baitzidan enkarguak, aparteko aditua ez naizelako. Mari Karmen Menikak azaldu zidanez, nik bizi izandako aldiak eta somaturiko bilakaerak ziren hitzaldiaren zutabea. Hori horrela, egundoko murgilketa biltzaile eta arakatzailera behartzen ninduen lanak. Eta ustekabe desatsegin batez egin nuen topo: nere almazena ia hutsik zegoen, ezer gutxi konta nezakeen nire esperientzia propioaz.

Eta, beraz, gogo-jardunetan egon banintz bezala barne-hustuketa eskatu behar izan nion neure buruari, nondik hasi eta nora irits nintekeen ikertuz, tarteko mugak –zer garen, noizdanik ari garen...– nolakoak izan zitezkeen oso garbi ikusten ez nuelarik. Galdera erabakigarriak, beraz, traszentalak, batez ere hitzaldiaren mamiari heltzearren Arrasaten ezagutu dudan

euskararen bizitza azertu behar banuen. Dudarik gabe, konpromezua hartua nuen eta –hitzak hitz– agindutakoa bete behar nuela konturatu nintzen.

Nola arraio sailka daitezke, bere haurtzaroan gaztelaniarena izan ezik beste mintzairaren baliagarritasuna bizi izan ez duen mukizu haren euskararekiko zertzeladak?

Horratx galdera zaila eta ulergaitza. Behintzat, lehendabizi neure buruari planteatu nionean nekez asma nezakeen erantzuna. Eta orain ere, orrialde hauek guztiak idatzi ondoren, zalantzan daukat asmakizunaren haria aurkitu ote nuen.

Sekretutxo bat kontatuko dizuet. Nire penarik bitxienetakoa hauxe da: aita zenak maiz eta ozenki egiten zuen amets; bakarrizketa luze eta bibrazio handikoetara ohitu gintuen. Baina etxeko gainontzekoentzat aitaren gau-amets haiek inkognita hutsa gertatu ziren beti. Zergatik? Bada, aita izan ezik etxe hartan beste inor ez baitzen gai euskara erabiltzeko. Ez genuen tuitik ere ulertzen... Aitarekin batera joan ziren betiko bere amets mintzatuak.

Nire aitaren burmuina euskarazko koipeaz ibiltzen zen, antza.

Hogeita hamabost urte geroago, hau da gaur egun, ez litzateke gauza bera jazoko. Bi arrazoirengatik:

a.- Gure belaunaldiaren burmuina (salbuespen duin batzuekin) erdarazko taladrinaz ari baita. Beraz, ametsak erdaraz aiderazten ditugu.

b.- Aipaturiko salbuespen horien

* Arrasaten 1993ko Azaroak 30ean emandako hitzaldiko testua da artikulua.

kasuan, hots, ametsak euskaraz dituztenei dagokien kasuan, euren senitartekoak gai direlako euskaraz ulertzeko. Baina hemen ere fenomeno berri bat azaldu zaigu, arrasatear gaztetxo eta zaharren artean darabilgun euskaraz halako diferentzia nabaria ematen baita eta ez dakit norainoko gauza ote garen batak besteari erregistro guztietan ulertzeko.

Dena den, badirudi gaur egun antologia bat egin ahal izango litzatekeela euskaraz amets egiten duen arrasatear horren kontura. Nire kasuan, zoritxarrez, burutu ahal izan ez zena. Zerbait irabazi dugula uste dut, ezta?

Baina zu, baieztatu lezake zuetariko edozeinek, arraro xamarra izango zinen; berdin gertatzen al zen beste etxeetan?

Egia esan, ez dakit garai hartako nire lagunak gurasoak zer hizkuntzatan aritzen ziren euren ametsetan. Inoiz ez zidaten horrelako aipamenik egin. Baina, zalantzarik gabe, gurasoak ametsak ulertzeko gai izango ziren arren, ez zuketena idazteko gaitasunik erakutsiko eta, beraz, ezina gertatuko zatekeen ametsen antologia idatzia. Etendura praktikoa zen.

Beste gauza bat esango dizuet: urte asko igaro ondoren ezagutu dut, haurtzaro eta nerabezaroko nire lagun haietako batzuek ederki zekitelako euskaraz. Baina ez zuten euren *trebetasuna*-ren berri ematen... beharbada *borono*-tzat har ez genitzan. Eta agian lau hormen artean (etxean) gurasoekin erabilitako euskara autodebekatua zuten kalean, uneko tentsio soziopolitikoak hala behartuta. Eta, zer esanik ez, kalean euskaraz egiteak inolako beharkizun bete ez eta prestigiorik eman ere egiten ez zuelako.

Hogeita hamabost-berrogei bat urtez joan naiz atzera, Arrasateko historian.

Beste behin ere aipatu dut, fenomeno azpimarragarria ematen dela gure adinekoen eta hamar bat urte lehenago jaiotakoen artean, hau da 1945-1950 eta 1935-1940 aldietan munduraturiko arrasatearren artean. Gu baino zaharragoak direnak –nahiz eta anai-arrebak izan, hots, belaunaldi berekoak– askoz gehiago mintzatzen dira euskaraz gu baino. Gerra ondorengo lehen mundurautarren tropelak hobeto eutsi zion euskarari, kaleko harremanetan eta, noski, irakaskuntzan ezertarako erabiltzen ez bazuten ere. Baina anaia-arreba zahar horiek, gurasoengandik jasotako euskara zauritua (gaixoa) erdara bilakatu zuten etxeko harremanetan geroago jaiotako senitartekookin. Zubia, beraz, apurtuta zegoen.

Nire adinekoak gara euskararekin lehen arazo serioa eduki dugunak, edozein ikerketa xumek frogatu dezakeen bezala. Zer portzentaia izango da 40-45 urte inguruko arrasatearren artean solasaldi labur bat euskaraz eramateko gai direnak? Oso baxua, dudarik gabe.

Baina, gure ondorengoek indize txarragoa erakusten dute oraindik, joerak beherantz egiten duelarik, hain zuzen ere ikastolako lehen fruituak loratzen hasi arte.

Senar-emazteak euskaldunak izanik, seme-alabek euskaraz egiteko gaitasuna galdu zutenen kopurua handia izan zen. Ene uste apalean, askoz handiagoa Arrasateko Udalak berriki egindako azterketak dioena baino. Udalaren datuen arabera, biztanlegoaren % 4'79 da guraso

euskaldunak dituzten ondorengo erdaldunen kopurua. Galdetu beharko litzaieke –euskaraz aritzeko gai direla diotenei– zer ulertzen duten gaitasunari buruz.

Belaunaldi galdua deitzen diot nik gureari, euskararen ezagupideei dagokienez, noski.

Belaunaldi galdu horri eskaini nion *Sixties* nire liburua, "Jose Luis, Miguel Angel, Javi... urte haietako lagunei, eskerronez, liburu hau ez dutela irakurriko uste dudan arren". Eta asmatu nuela iruditzen zait, inork ez baitit aipamenik txikiena ere egin liburuaz, ezta bertan idatzitako eskaintzaz ere.

Kide horiek euskararentzat berreskuratzea lortzeko egin genitzakeen ahalegin guztiak alferrikakoak lirakeela esango nuke.

Ezin daiteke esan harreman arruntean "euskara" erabat baztertua genuenik. Ez, ez da hori. Beren jatorria non eta noiz aurki zitekeen ezezagun zitzaigun hitz mordo bat erabiltzen genuen, batez ere gure jokoetan.

Gaur egun gure kale eta plazetatik erabat desagertu diren joko asko genituen astimatego eta horietako hainbatek euskal kutsu zuzena erakusten zuten.

Horrela, kaniketan *potxo*, *bizkarreko*, *leka*, *arrisku* eta abar entzun zitezkeen jokalarien artean, hitzen zergatia ongi ez bagenuen ulertzen ere. Kontzejupean, elizpe zaharrean edo Gazteluondoko espaloietan ordu asko eman genuen kaniketan, *de buztin no valen e?* azpimarratzen genuelarik.

Jugamos a lekas o bizkarrekos?... Jota potxo, arrisku buena esaten genuen, geure aurrekoek asmatutako jokoaren azken euskal aztarrenak, haizatuz. Eta kanika guztiak edo gehienak galtzen genituenean, *me has amurrichado* adierazten genuen penaz, *murriztu* aditzari erdal joko bitxia eskainiz.

Eta kaniketan aspertzen ginenean, *a pelatojaurtis*, *a tentes* edo *a txorromorros* jolasten ginen. Beraz, garbi gera dadila euskal erreferentziaren bat bagenuela.

Beste batzuetan, ordea, ez zegoen hain garbi gure jolasak euskal hitzerrorik zuenik. Behintzat, ez guk hitza erabili ohi genuen moduan: *Jugar a lavanderas* esaten genion, maldan behera txirrist edo laban egiteari –gehienetan txiza egin ondoren, noski– hau da *laban behera* izan behar zuenean.

Edo *te echo un partido a pelota*, *tu normal y yo al cape* egiten genion desafio lagunari, besteak bi eskuz eta desafiatazailak pilotari *hankapetik* jo behar ziola.

Gaur egun, gure garaiko joko haiek Arrasateko kaleetatik desagertu direnean, hitz askoren erabilera ere itzali da. Zeinek daki, gure artean, zer zen *mokil* bat? Edota sagarraren *muzkina?*

Barkatuko naute emakumeek, ez badut beraiei zegozkien jolas askoren aipamenik egiten, baina beren erdaran ere euskal iragan aberatsago baten arrastoa bazela azal daiteke, *Jugar a ankakoskos*, *saltar a la cuerda a bikos*.

Eta bai haiek baita guk ere, euria zen ostegunetan (arratsaldean jai),

jugamos en las harmailas de los kalistros porque si no nos vamos a melar proposatzen genion elkarri.

Urte haietako neskek ere, guk bezala, San Kristobal edo Kurtzetxiki gainean hegaz biraka ibiliko zen saia edo mirua ikustean esango zuten, *mira, una bela*, izendapen horren barruan, ia-ia, enara edo buztan-ikararik kanpo geratzen ziren gainerako hegazti-mota guztiak sartzen genituela.

Euskal manifestaziorik garrantzitsuena abenduren 6koa izan ohi zen, umeentzat egun berezia, *San Nikolas coronado* abestera irteten baikin (gure zoritxarrerako, hain jai polita espainiarrek –urteak pasata– euren Konstituzioaren efemeridearekin nahastu digute).

Ordurako arrasatear gizarteak baserri-gizarteko kutsurik gehiena –dena ez esatearren– galdua zuen. Hamabostean behingo ostiraletan (hileko bigarren eta laugarrenean) izaten ziren ferietara biltzen ziren inguruko baserritarrak eta orduantxe konturatzen ginen bazela beste mundu bat, guretik aparte eta –hain zuzen ere– ikaskide genituen zenbait *boronori* zegokiena. Guk barre egiten genuen *olvidar cuaderno en caserío* eta horrelakoak haiei aditzean. Baina "borono ezjakin" haiek bazekiten bereizten *larraztarrua birigarro*-tik eta *ogitxagaztaia*-ri ez zioten inoiz *katumixarra* deituko. Baina horretaz, urteak pasata ohartu ginen, ikaskide haiekin beren hizkuntzaz mintzatzeko gai izan ginenean, alegia.

Dena den, hiriko zibilizazio oroi-rensleak ezabatuak zituen ordurako baserritarren hiztegiko aztarrenik gehienak. Ondorioz, zibilizatuoi neke-

za gertatzen zitzaigun *erlia* eta *erlabixua*-ren arteko diferentzia antzematea. Gehienetan, jakin ere ez genekien –adibidez– *aulkixa* eta *sillia* ez zirela ikaskide ohientzat gauza bera.

Guk, zibilizazio hartako euskarazko ikasle goiharrook –Yon Oñatibiaren metodo radiofonikoaren bitartez mundu berri baten izkutuak ezagutze-ko prestatzen ginenok– ahaztu egiten genuen gure ikaskide izandako haien bizitza-filosofiako zutabe sendoenetakoa: *Ententiduten dittugun gauzak jakin bier bajittuau bakarrik, gauza gutxi jakixau*.

Nola azaldu, Batikanoko kontzilioak irekitako atetik eta abertzaletasun-izpi oraindik ahul batetik, arrasatear gazte batengan euskaltzaletasunerako gogoa piztu zela?

Zuetariko askok *Pater Noster*-a lehenago jakingo zuen buruz *Aita gurea* baino. Nire kasuan, behintzat, horrela gertatu zen. Baina, Trentoko Kontzilioak Beñat Etxepareren arrakastarako atea ireki zuen bezala, Joan XXIII Aitasantuak mesede handia egin zion euskarari, Batikanoko II. kontzilioa zela eta, elizkizunetan euskara sartzen hasi baitzen, diktadurak ezarritako enbutu-arau estuetatik izan bazen ere. Mezak gaztelaniaz ematen ziren baina kanta batzuk euskaraz egitea baimendu zen. Horrela, euskal hit-parade berezian, *Ogi zerutik, Hostian bizi zera* eta halako tituluak agertu ziren, indarrez. 1962ko urrian eman zitzaion hasiera elizaren irekitasunari. Garai berekoa da *Love me do* Beatles-en lehen diskoa. Beraz, euskararen zuzperketaren abiapuntua liverpooledarren ez tandarekin koka genezake kronologian.

Eta urte xamur haietan fenomeno

aldaezin batek hartzen du toki euskal gizarte osoan: ETArek sorrera eta etakideen lehendabiziko ekintza publikoak. "Zerbait" mugitzen ari zen eta mugimendu horren eragina gureganaino iritsi zen, oso era mugagabea izan bazen ere. Gure kontzientzian ordurarte ezezaguna zitzaigun izpi berezi bat ageri zen. Eta horrek zenbait ohitura eta sentimenduren aldaera adierazi zigun, lehendabiziko mugimenduak oso zalantzakorrak izan ziren arren.

Mi padre sabe escribir en euskera; me ha dicho que es muy difícil pero que hay que intentarlo esan zidan behin ikaskide batek, bere aitaren trebetasun izkutu hura lehen aldiz azaltzera ausartzen zelarik. Eta koadrilako taldetxo batek San Viator-eko irakasle euskaldun bat hartu eta lehen aipaturiko metodo radiofonikoari ekin genion. Martxan ipintzen genuen, beraz, "arinaizeta" deituriko fenomeno, zaletasun hutsezko borondateak askoz harantzago ezin baikintzakeen eraman. Urte mordoxka ibili ginen *ikasten ari naiz*-eko lemapean, euskararenak zaletasun hutsa baino gehiago exijitzen zuela guztiz jabetu arte.

Gerra aurrean "Abadetxe"-ko ikastolan ibilitako ikasleak –hau da, geure gurasoak– harripeetatik irteten hasi ziren, poliki-poliki. Eta haietako batzuk klaseak emateari lotu zitzaizkion, erdi ixilpean beti beldurrez, "Chino"-a edo Marino tenientea euskal nortasuneko edozein ezaugarriren atzetik biltzen baitziren, lege-hauslea koartelera "gonbidatzeko". Dena den, oraindik ahaleginak oso ahulak ziren eta, gainera, ezin daiteke esan indar sozialek –praktikan behintzat– euskararen aldeko aldarrikapen zuzena egiten zutenik.

1963ko Kooperatibetako Batzar Nagusian, euskararentzat dirurik izango ote zen galdetu zuen bazkide batek. Lehendakaritza-mahaiaren erantzuna, gutxi gora-behera, hauxe izan zen: *ez dugu leizeetako gizonaren garaietara itzultzeko asmorik* (erdaraz adierazita, noski).

Hogeita hamar urte georago, erantzun haren emaleak euskarazko artikuluak publikatzen ditu noizean behin... eta, zorionez, ez du horretarako leizeetara itzuli behar izan. Gauza asko aldatu da, bai jaunok, azkeneko hogeita hamar urteotan.

1967ko urrira arte itxaron behar da gerra osteko Arrasaten lehen Ikastola antolatua ikusteko. Euskal Herri osoan bezala, ekimen pribatuari esker gorpuztu ahal izan zen lehen Ikastola hura. Eta herkide aitzindari haien arteko bat azpimarratu beharko bagenu, hori Don Jose Luis Iñarra da, garaiko herriko erretorea, hain zuzen, berak lortu baitzuen Ikastolarako eliz babesa eta berak eskaini zion aterpea. Izan ere, Ikastola hark Abadetxean ireki baitzuen lehendabiziko gela, hamazortzi ikaslerekin. Gerra aurreko Don Jose Markiegi euskaltzalearen lekukoa hartzen zuen Don Jose Luisek, biak –kanpotarrak izanik– mundrautar zintzo bihurtuta.

Gure herriak bere historia osoan izandako populazio-hazkunderik handiena ezagutu zuen 1960 eta 1970 artean, azken urte honetan 23.000 biztanle inguru ginelarik, hau da, 2'3 bider gehiago 1950ean baino. Gehikuntza horren arrazoia, noski, inmigrazioan bilatu behar da.

Beraz, 70eko hamarkadan hasieran diktaturak euskararen gainean egindako presio zuzena moteldu

bazen ere, beste mota desberdineko bat eta hura bezain edo gogorragoa agertu zen Arrasaten eta, orohar, Euskal Herri osoan: inmigranteena. Gure haurtzaroan ez zen euskara kalean entzuten, debekatua eta jazartua zegoelako. 60eko hamarkadan, etorkinen uhin geldiezinak, berriz, bere eragina gehitu zion, politikoki jasaten genuenari.

Euskarak, beraz, biderkatuta ikusi behar zituen bere aldeko ekintzak inoiz burua altxako bazuen. Eta "gau eskola" izeneko fenomeno zabalari ekin zitzaion, helburu nagusia biztanle helduak euskalduntze eta alfabetatzea zituelarik. Arrasaten *Danok* kultur taldea izan zen aitzindaria, ilusioa eta borondate ona irakaskuntza-formula haren osagairik inportanteenak izanik, irakaslegoari ezin zekiokela aparteko prestakuntzarik eskatu. Zergatik? Otarra egiteko zume egokiren faltarengatik. *Euskerak, ire laguna!* Patxi Altunaren liburua ehundaka saldu zen Arrasaten; *Present day English for foreign students* zeritzan metodoaz baliatu zen Patxi Altuna bere liburua taxutzeko. Egiatzko "best seller" gertatu zen eta arrasatear askorentzat huraxe izan zen inoiz irakurritako lehen euskal liburua.

Arrasateko gizartera sentsibilizazio politikoa galbahe desberdin eta ugariagotik iristen ari zen neurrira, euskararekiko planteamendua ere aldatzen zihoan. Hori horrela, herriko ikastolak 1972an bizi izandako ekaitza gogoratu behar da. Ikastolako guraso eta irakasleen arteko tirabirek eten izugarria ekarri zuten bi kolektiboetarako: hamazazpi irakasleetatik hamabost kalean gelditu ziren. Baina bizitzak aurrera jarraitu behar eta, gatazka dialektiko guztien gainetik, ikastolak aurrera egin zuen.

Urratsez urrats, poliki-poliki. Zuhaitzak ezin zezakeen berehalako fruiturik eman. Erlojuz kontrako lasterketa zen eta bidea zailtasun eta eragozpenez beterik zegoen. Gainera, lasterketa horretan euskarak ahalmena gutxitua zeukan –dena esan behar da– gaztelania etsai zitzaionaren kontra.

Ordudanik gaur egunera arte hogeitau urte igaro badira ere euskararen egoera oso larria da Arrasaten eta Euskal Herri osoan. Ibilbide mal-kartsutik gora aurreratzen goazen arren, gure aurrerapena aritmetikoa da. Oroitu, besterik gabe, ez dugula oraindik egiazko Euskal Unibertsitatearik lortu ahal izan.

Beraz, adiskideok, atera kontua nolakoa izan zitekeen 70eko hamarkadaren erdialdean Arrasaten bizi genuen egoera. Ikastolak berak, artean OHOn zikloa bete gabe zeukan. 1975-76ko ikasturtean, ikaslegoaren % 9 zen OHOn euskaraz egiten ari zena (358 ikasle) eta eskolaurrean, berriz, % 41 (494). Garai hartako aurrikuspenean artean, 1980rako OHOn osoko % 38 jotzen zen, euskarazko ikasleei zegokienez. Gauzak motelxeago joan direla uste dut, azken datuen arabera (*Euskararen egoera Arrasaten. 1993 urtea*) gure herrian OHOn D eredu jarraitzen duten ikasleak % 41'38 baitira. B eredu, berriz, % 57'58 da. Inolako dudarik gabe, oraindik ez gaude preparatuta murgiltze (immersio) osoko frogarako.

Arrasatearrok geure burua euskalduntzea zaila izanik alfabetatzearen arazoa ere ez zen bat ere makala. Oztopo asko, eta horietako bat, adibidez, metodorik eza genuen. Ikastaldiak aurrera zihoazen neurrira prestatzen

zen materiala eta ezinbesteko irakaslegoa. Lehen aipaturiko "gau eskolak" erreferentzi punturik printzipalen bihurtu ziren eta hemen, herri mailan ari zen taldeak Euskal Herri osoan ziharduten besteekin bat eginik, *Alfabetatzen* izeneko liburu sailari ekin zion. Diodan, enpresa hartan eta Leintz bailarako Alfabetatze batzordearen izenean Xabier Zubizarreta, gaurko alkate jauna, aritu zela. Eta, oker ez banago, bera izan zen baita –Bernabe Berezibar ahaztezinarekin batera– bere egunean entzutetsu izan genuen *Batasunaren Kutxa* liburuko sinatzaile arrasatear bakarra¹.

Alkate bat aipatu dut eta ezin utzi beste bat aitatu gabe. Demokraziaren atarian geunden eta Arrasateko lehen agintaria Jose Antonio Altuna zen. Beraren agintaldian, euskalgintzan argi bereziz dirdiraturiko bi arrasatearren irudiak aldarrikatu eta ezagutarazi ziren: Sebero Altube eta Jokin Zaitegi handiei nagokie. Lehenari, plaza eskaini zitzaion 1977ko otsailaren 19an. Zaitegi, berriz, herriko seme kuttuna izendatu zuten, 1976ko Abenduaren 19an. Eta Udaletxean egindako saio hartan entzun genuen, lehen aldiz aspaldiko partez, alkate euskaltzale baten diskurtsu ofiziala. Bi ekintza hauen gainean hauxe gehi dezaket, plazaren inauguraziora Jokin Zaitegi ekarri nuela, ordurako Oñatiko Egoitzan baitzegoen. Altuberi buruzko Jose Antonio Altunaren hitzak entzun ondoren, plazan bertan Jokinek erregu bat egin zidan, Altubereren biografia idaztea, alegia. Tesitura zailean jarri ninduen, ni ordurako Zaitegiren laguntzaz bere biografian ari bainintzen eta... beraz, zer egin? Jokinek berak gogoratu zidan 1979an Altubereren

mendeurrena ospatuko zela eta lehentasuna hari eman behar niola erabaki zuen.

Sebero Altube, nire lehen liburua, 1979ko Abenduan argitaratu nuen, Euskaltzaindiaren babesean hemengo Udaletxean antolaturiko ekintzan. Zaitegik ez zuen ezagutu ahal izan berak proposatutako liburua, urte hartako Abuztuan hil baitzen. *Jokin Zaitegi*, bigarren liburua, ez nuen 1981ra arte kaleratu.

Hamarkada bat amaitu zen, agian ikastola eta "gau eskola"-ren garapen apal baina jarraiko hamarkada dei genezakeena. Bidea ibiliaz egiten ari zen. Atzean une latzak geratzen ziren baina aurretik zegoena ez zen goxoa-goa. Dena den, 70eko hamarkadari Burgoseko prozesuaren oihartzun freskoekin (1970eko abenduan) eman zitzaion hasiera. 80ekoari, berriz, Eusko Jaurlaritzaren sorrerarekin: otarra egiteko zumeak hobeagotzen ari omen ziren.

Nola azaldu, teoriak behintzat euskaltzaletasuna sendotu eta abiadura geometrikoaz garatu ahal izateko Erakunde eta herri-mugimenduak ditugunean, euskara inoiz baino presio kaltegarriagoa sufritzen ari dela?

Diodan bezala, 1980an itxaropenez beterik hartu genuen gerra osteko lehen Eusko Jaurlaritzaren osaketa. Eta abertzalea, gainera! Gutariko hainbatek euskararen zuzperraldia askozaz eramangarriago eta etekin handiagokoa izango zela uste genuen.

Baina berriz ere oker ginen. Eta Euskal Herria Euskadi baino maiteago

1. Hitzaldia eman ondoren beste arrasatear baten izena etorri zait gogora: Eduardo Larreategik ere sinatu zuen 1970.eko manifestu hura.

genuenok, gure agintari abertzaleek eskizofrenia erraldoi eta ondorio ezezagunetako batera ez ote gintuzten eraman behar hasi ginen pentsatzen. Bestela esango didazue, Eusko Jaurjaritzaren Hezkuntza sailburua euskararen etsaia denean zer arraio pentsatu behar den! Niri, behintzat, gogo-egituraren eskema guztiak lurreratzen zaizkit, halako despropositoen aurrean.

Baina gatozen, berriro, herri-mailara. Hemen ere, 1979tik udal demokratiko eta abertzalea genuen, gehiengoan bederen. Beraz, Administrazioan euskara erabili ahal izateko bidea irekitzen ari zela esan daiteke. Ez genuen pausu makala, ez horixe. Baina kurpila astunegia zen eta, ohiturak ezezik, administrazioko langileak ere birmoldaketa sakon baten premian aurkitzen ziren eta, ondorioz, euskarazko udal-dinamizatzailearen lanpostua sortu zen.

Seguru asko, dinamizatzailearen lana ez zen izan –hasiera hartan– berak elebitasunaz ulertzen zuen dinamikari zegokiona, itzultzaile-lanetara mugatu behar izan baitzen gehien batez, euskaldunok betebeharrak antzutzat daukagun arlori, hain zuzen. Baina, nonbaitetik ekin behar zitzaion... aurrera egingo bazen.

Udal haren legegintzako hirugarren urtean, 1981ean, alkatea zen Jose Antonio Ardanzak udal-aldizkari bat sortzeko zer egin behar zen aztertzea eskatu zidan. Korporazioko gora-beherak eta kultur gaiak bi hizkuntzetan publikatu nahi zituen. Handik astebetara edo eraman nion, zenbait esperientziatan oinarriturik (batez ere, Gasteizko Udalak hilero argitaratzen zuen boletina izan nuen erreferentzia) diseinaturiko egitasmoa.

Egitasmoak egitasmo izaten jarraitu zuen. Ez dakit inoiz ikertu ote zuten udalkideek proiektu hura. Niri eman zitzaidan erantzuna, dirurik ez zegoela izan zen.

Edozein prozesu aurreratzailetan kontutan izateko beste baliabide garrantzitsu bat komunikabideak ditugu, dudarik gabe. Alde horretatik, arrasatear arruntak ezer gutxi zuen 80ko hamarkadaren hasieran. Hiru bat urte lehenago plazaratu berriak ziren egunkari abertzaleek jaramon gutxi egiten zioten euskarari. Jarrera horrek abertzale-euskaltzale binomioaren alde ahula erakusten zigun egunero. Aukera izan nuen, 1977tik *Deia* egunkarian lan egiteko, batipat Leintz bailarako albisteak ematen, euskaraz. Baina hasierako ilusioari deslilura sakonak jarraitu zion, egunkariaren erredakziotik erdaraz gehiago idaztera eragin gintuztenean. Bertan behera utzi nuen lankidetzak. *Egin*-en ere gauza bera gertatzen ari zen.

Loiolako Herri Irratia genuen euskarazko programazioari heltzen zion bakarrenetakoa eta Arrasaten horixe zen gehien entzuten zena. Telebistari dagokionez, ETB ez zen Arrasatera 1983ko abuztura arte edo agertu.

Irakaskuntzan, ikastolak bere egitarauarekin jarraitzen zuen eta euskal espektroan AEKren kolektiboa sortu zen, 60ko urteetatik "gau eskolak" zirenen bilkune bezala.

1981an Arrasaten "Kilometroak" jaia antolatzen da eta bertako euskaltzaleontzat aukera paregabea izan zen, herri-ekimena noraino hel zitekeen erakusteko.

1983, aro berri baten abiapuntua:

AED jaio da. Euskararen zuzperketarako herri-mugimenduak erabat beharrezkoak direla erakusten da, hemengo eredia Euskadiko beste hainbat tokitara eramaten delarik.

Dakizuen bezala, 1993an hamargarren urtemuga bete da AED sortu zenetik eta, nik baino lehen eta hobeto beste batzuek egin dutelako, ez dizuet zehaztuko talde horren lana zein izan den eta zernolako eragina izan duen Arrasaten, azken urteotako euskalgintzan.

Baina ziur nago, AEDk lortutako arrakasta ez zela 1983ko aitzindari haien aurrikuspenik baikorrenetan ere iragartzen.

AED dinamizatzaile aparta izan da, euskararen prestigioa lehenago inoiz lortu ez zuen mailara jaso duelarik. AEDk ongi bete du bere funtzioa, pluraltasunean tinko, eta nik esango nuke arrasatearron konfidantza irabazi duela, publiko guztietara iritsi baita gardentasun osoz. Horretantxe neurtzen dut nik AEDren arrakasta, bere irekitasunean hain zuzen, eta bide berari eutsiz gero oso urrutira hel daitekeelakoan nago. Politikoen baimenarekin, noski.

Haur eta gazteekin egitaratutako ekintzak, euskal kulturaren zabalkunderakoak, sentsibilizazio-kanpainak eta, batez ere, komunikabideetan urratutako bidea dira AEDren lorpenik entzutetsuenak. Eta Arrasatetik "teknologia" esportatzen hasi gara, teknologia berezia, alegia, Euskadiko gainerako herrietan aplikatzeko interesgarria ez ezik ezinbesteko bihurtutako teknologia euskaltzalea: dirutan neurtu ezin daitekeena.

Arrasaten honako hau erakutsi da,

berriro, AEDren bitartez: herri ekimenak ereindako haziak epe luzera fruitu hobeak ematen dituela, besterik gabe inondik inposaturikoak baino (horrek ez digu ahaztarazi behar euskarak diskriminazio positiboa behar duela, dagoen zulotik aterako bada. Horregatik, kontuz zenbaitzuen faltsukeriarekin!).

Baina, hamar urte hauek eman ondoren, zernolako egoeran aurkitzen da gaur egun gure hizkuntza Arrasaten?

Ondoren emango ditudan datu eta zehazkizunak, Arrasateko Udalaren Euskara Zerbitzuak argitara emandako *Euskararen egoera Arrasaten. 1993 urtea* deritzan txostenetik atera ditut.

Honako hau da Eskolaurrean eta OHOn 1992-93 ikasturtean irakasteredu bakoitzak duen pisua: ikasleen % 1 A ereduak dabil, % 57'5 B ereduak eta % 41'3 D ereduak. Irakaskuntza ertainetan, berriz, A ereduak dabilen ikasleak % 51'5 dira eta D ereduak % 48'5. Injinerutzan D ereduak ez du oraindik A ereduarekin parekatzerik lortu, baina urtetik urtera goraka doa: 1992-93an Injinerutzako ikasleen % 32 D ereduak dabil. Azkenik, Arrasateko irakaskuntza bere osoan hartuz gero, ikusten da D eredia dela indartsuena –ikasleen % 41'9arekin– eta A eta B ereduak ikasle-kopuru berdintsua dutela, A ereduak % 26'6 eta B ereduak % 31'5. Bestalde, A eredia urtetik urtera ikasleak galtzen ari da, B eta D ereduak mesedetan, eta espero izatekoa da beste 10 urtetan erabat desagertuko dela Irakaskuntza ertainetan.

Beste alde batetik, helduen euskalduntze-alfabetatzea ere Arrasaten garrantzi handiko fenomeno soziala da, urtean 600-700 lagun ibiltzen baita hainbat motako ikastaroetan.

Azkeneko zortzi ikasturteetan Arrasatek bere ikasle-kopuruari eutsi egin dio eta Euskal Herriko batez-bestekoaren gainetik dago.

Ikuspegi koalitatibo batetik, ordea, egoera bestelakoa da. Kezkagarria da, oso, lau ikasletatik batek ikasturtea ez bukatzea. Ikasleen asistentziari dagokionez, 1991-92 ikasturtean Udal Euskaltegian ibili ziren 554 ikasleetatik 145k baino ez zuten % 80tik gorako asistentzia; hau da, matrikulatutako ikasleen % 26'2ak baino ez zuen asistentzia egokirik izan (HABEren lkuskatzailetzak % 80tik beherako asistentzia ez egokitzen jotzen du).

Ikasturtetik ikasturtera bere ikasprozesuari bukaera eman arte euskaltegian ibiltzen den ikasle-kopuruari buruz, honako hau esan daiteke: 1987-88 ikasturtetik hona batezbeste ikasleen % 34'1ak baino ez du bi ikasturte jarraian egin.

Ikasleen aprobetxamenduari buruz ditugun datu urriak ere ez dira oso baikorrak. 1991-92 ikasturtean, Udal euskaltegiko 554 ikasleetatik 196k (% 35'3ak) ez zuen bat ere mailarik gainditu. Porrot akademikoa handia da.

Urtean euskalduntzea edo alfabetatzea lortzen duten pertsonen kopuruari buruz ditugun datuek ere ez dute halako itxaropen handirik eskaintzen. Udal euskaltegiko 554 ikasleetatik, iazko ikasturtean, 24k lortu zuten oinarrizko euskalduntzea, 8. urratsa gaindituaz, eta beste 19 ikaslek oinarrizko alfabetatzea lortu zuten, ALF. 1 gaindituz.

Komunikabideen arlora pasatuz, egunkariaren Arrasateko kroniketan euskarak duen presentzia urtetik urtera handituz doa. 1987tik hona, % 6'2tik % 19'8ra pasatu da, *Egin* eta *Deia* direlarik euskarari tokirik eskaintzen dioten bakarrak.

Bestalde, *Arrasate Press* gaur egun erabat finkatuta dagoen herri-aldizkaria da, Arrasateko 4.800 familiatara iritsiz. Herrian aldizkari honek duen irakurle-kopurua 14.430 lagun ingurukoa da.

Arrasate Telebista-ri buruz, berriz, arrasatearren % 30ak ikusten du ATB egunero edo maiztasun handiarekin; arrasatearren % 50ak, berriz, maiztasun txikiagoarekin ikusten du ATB.

Euskaldunon Egunkaria-ri dagokionean, berriz, bere ezarpena eta zabalkundea Arrasaten behar baino txikiagoa da.

Arrasatek gaur egun dituen 25.532 biztanleetatik ia 11.000 (% 42'64) euskaldunak dira, 1986 urteko eroldaren arabera; euskaraz zerbait dakitenak 3.000tik gora dira (% 12'53). Bost urte lehenagoko eroldan, % 38'62 eta %20'99 ziren datuak. Honek esan nahi du oraingo abiadan 50 urte inguru beharko lirakeela Arrasate erabat euskalduntzeko.

Mapa soziolinguistikoan Arrasate euskara azkar berreskuratzeko bidean dagoela adierazten da. Izan ere, Arrasateko euskal hiztunen piramidea 18-65 adinekoetan oso estua izanik (% 37 ingurukoa), 2-17 adin-taldean asko zabaltzen da (% 51'5) eta adin-tarte horretako pertsonak dira eskolaren bidez euskalduntzera iristen ari direnak. Prozesu honek honela jarraituz gero, euskararen ezagupena azkar samar –lehen aipatu bezala, 50 bat urtetan– zabal liteke Arrasateko biztanleria osora.

Zein da baina –eta hementxe dago koxka– euskararen erabilpena kalean, lagun artean eta familia giroan?

Euskararen ahozko erabilpena Arrasaten % 25ekoa da, 1993 urtean egindako neurketaren arabera. Sei urtetan jarraian egin da neurketa eta

erabilpenik bajuena % 11'6koa da, 1988an. Aspaldiko hiru urteotan asko hazi da euskararen erabilpena Arrasateko bizitza publikoan, % 15etik % 25era pasa da eta.

Honaino, oso laburtua, aipaturiko txostenak isladatzen dituen zehazkizunek diotena. Oso txosten interesgarria, berez argigarria baita, gure hizkuntzaren nondik norakoei dagokienez.

Nola uler daiteke, lagunok, euskarak gure herrian egundoko jauzia egitea aurrerantz eta, aldiberean, kaleko presentzia askoz atzerago geratzea?

Ezagueraren hazkondeak, berez, erabilbarena al dakar? Ez nuke erantzun ahalko, daturik ez dudalako eta, bestalde, zerbait neurgaitza neurtu beharko genukeelako. Baina, nik ezetz esango nuke. Gero eta gehiago dira euskararen normalizazio linguistikora hurbiltzen diren haur, gazte eta helduak. Baina oraindik tarte luzea geratzen zaigu, idazteko orduan, adibidez, akatsik gabe egin dezagun. Zer esanik ez, euskara mintzatuak horma garaia du bere aurrean, Arrasaten bertan euskaldun ikasiek arau berdinak jarrai ditzagun.

Oso *baikorrak* izan behar dugu (azpimarratuta *baikor* hitza) Arrasateko biztanleria osoa hemendik 50 urtera erabat euskalduna izango dela pentsatzeko eta iragartzeko. Ni zuhurragoa izango nintzateke, badaezpada ere, oraingo abiadura motela iruditu behar zaigula deritzodalarik.

Benetan uste al duzue, baikor izan gaitezkeela gure hizkuntzaren egoera juridikoa dela eta? Noski, Arrasate

diodanean Euskadi osoa aipatzen ari naiz. Baikor ager al daiteke euskalduna, bere hizkuntzari Gernikako Estatutuak eman ez eta Espainiako Konstituzioak lehen mailako nortasun juridikoa kendu dionean?

Katalunian, hiritarren % 93'8ak ulertzen du katalanera eta mintzatzeko % 67'6ak badaki. Eta joerak gorantza markatzen du, bai planteamendu pasiboetan (hau da, ulertu eta irakurri) baita aktiboetan ere (hitx egin eta idatzi).

Azken bost urteotan katalanera idazteko gai direnen kopurua % 8ra jaso duten gazteetatik askok ez dute katalanera euren harremanetan erabiltzen. Non datza arrazoa? Hizkuntzarekiko jarreran? Ezetz dirudi, orokorrean ona delako eta gizarteko maila guztietan katalanera ongi sustraitua dutelako. Beraz, nola ulertu harreman pertsonaletarako aukeran gaztelania terrenua irabazten ari izatea?

Hizkuntz adituek diotenez, Kataluniako marko juridikoak ez dio katalanerari, edozein estatu-hizkuntzak askatasun eta eskubide osoz garatzeko behar duen legeria eskaintzen eta katalaneraren ezaguera portzentaian altua den arren, beti dago espainolaren menpe, desorekatua. Beraz, katalanerak estatu-hizkuntza ofizialaren maila lortuko balu, gaur egun duen atzerapena gainditu ahalko luke... epe ertainean.

Baina hori, eta euskararen arlora nator berriro, ez dagokigu guri, politikoei baino. Ni seguru nago, katalanek estatus desberdin bat erdietsiko dutela laster katalanarentzat. Gu, bienbitartean, eztabaida antzutan galduko gara... teoriar

behintzat, erdaldunek beste eskubide dugun euskaldunon kalterako.

Dena den, eta azpimarratu egin beharko nuke pozez beterik, gure herrian eman daitekeen "ofizialtasun" iturri nagusian, hots Udaletxean, zeharoko iraultza positiboa eman da azken urteotan eta, lehen aipaturiko txostenean irakur dezakegunez,

Udalak duen egitura teknikoko giza baliabideen arabera, esfortzu eta egokitzapen txiki batzuekin, posible izango litzateke barne-funtzionamendua erabat euskaraz izatea eta herritarrekiko harremanak berauek aukeratutako hizkuntzan gauzatzea.

Baina –ohiko *baina*, hain zuzen– irakurtzen jarraitzen badugu, Udalaren erabateko hizkuntz normalizazioa lortzeko oztoporik handiena eta ia bakarra, egun, egitura politikoak sortzen duela jakingo dugu. Beraz, Euskadiko atmosfera ezezkor bera gure mikrokliman ere isladatzen da, argi eta garbi.

Jakina, ez nuke gaurko hitzaldi hau amaitu nahi aurreko hitz pesimista horiekin. Ez; esku artean daramagun lanak baikorrak izatera behartzen gaitu (bestela gureak egingo bailuke) eta herri honek ez liguke barkatuko balizko deslilura edo amore ematea.

Duela pare bat urte (91-07-17) Euskaltzaindiaren Jagon Saileko bilera batean irakurri nituen hitzak berrirakurriko ditut, zuen baimenarekin:

Euskaltzaindiak bere arau eta hariak ezar ditzakeen arren, Euskaltzaindia zer den ere ez dakien jende eta erakunde asko dago. Hori, alde batetik; bestetik, gizartearen beraren dinamika izan behar du gu gogoan, hau da, euskarekiko euskal (?) gizarteak azaltzen duen jarrera.

Eta, inolako zalantzarik gabe, hura ez da inor pozteko modukoa. Behintzat, geure buruak euskaltzalezt hartzen ditugunok argi ongi dakigu zernolako esfortzua egin behar den, haziak eman ditzakeen emariak ustel ez daitezen.

Zorionez, badira Euskal Herrian gure hizkuntza euren zereginetarako banderatzat jaso duten talde eta erakundeak. Agian oso lurralde kezkatu eta aurrerakoian (?) hazia naizelako, hemengo eredu esportagarria litekeela iruditzen zait. Arrasaten sortu diren baliabideak –AED, *Arrasate Press*, ATB...– beste edozein puntutan ere landaratu ahal izango lirateke... *herriak horrela nahi izanez gero*.

Dakikezuenez, Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren bete-beharra bikoitza da:

a) Euskararen erabilera bermatzea eta zabaltzen saiatzea; hots, jendaurreko agerkari desberdinetan gure hizkuntza neurri egokian presente egon dadin ahalegintzea.

b) Euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitea, jendaurreko edota jendarteko hainbat esparrutan (komunikabideetan, iragarki-seinaleetan, publizitatean...) hain sarri agertzen diren erabilera desegokiak ahal den neurrian zuzenduz.

Nik, plataforma honek eskaintzen didan aukeraz baliaturik, Jagon Sailaren eginkizunak AEDri pasarazi nahi nizkioke, *herri mailan praktikan ipintzeko*.

Horrela, hauxe eskatuko nioke:

a) Jendaurrean euskara erabiltzeko eta zuzen erabiltzeko, ideiak eta irizpideak biderka ditzala.

b) Euskaingintzaren alorrean ari direnen koordinazio-ardurarekin jarraitzea, *gure hizkuntzak AEDren beharra izan ez dezan arte.*

Aukerabidea geurea da, oso; baita erantzukizuna ere.